



Helburu nagusia zure marka ezagutaraztea eta erosle berriak erakartzea da. Hona hemen zenbait estrategia:

BEZEROAREKIKO HARREMANA

Publizitate digitala: Sare sozialetan gure produktuaren irudia indartuko dugu, Instagram, Facebook, TikTok eta Pinteresten profilak sortuko ditugu, hortik jende berria esagutuko gautu, horrela, gure produktua ezagutuko dute eta hoietatik salmentaren bat egin. Halaber, ordainpeko iragarkiak erabiliko ditugu, Facebook Ads edo Google Ads tresnek jendea erakarriko du, hala nola ile-apaintzaileak, alopezia duten pertsonak edo cosplayaren zaleak. Azkenik, influencerrekin kolaborazioak egingo ditugu gure ileordeak erabiltzeko eta promozionatzeko.

Sustapen fisikoa: Kartelak eta flyer-ak jarriko ditugu edertasun-zentroetan, ile apaindegietan, antzokietan eta makillaje-eskoletan, gure produktuak ezaguna izateko. Era berean, azoketan eta erakusketetan parte hartuko dugu, modarekin, edertasunarekin edo zinemarekin lotutako ekitaldietan, pelukek ikusiak izan ahal diren lekuetan, eta desfile bat antola dezakegu gure pelukak erakusteko. Bestalde, aurkezpenak eta erakustaldiak antolatuko ditugu, bezeroek gure produktuak probatzeko edo haien pentsaera jakiteko, horretarako ate irekiak egingo ditugu. Hasieran, gure lehenengo bezeroak Bizkaian eta Euskal Herrian izango dira, baina gure helburua da etorkizunean merkatuaren tamaina handitzea, ezagunagoak bihurtuz eta diru gehiago lortzeko.

Marketing zuzena: Etxez etxeko bisitak egingo ditugu, eskatu duten bezeroei peluka-laginak eramateko, adibidez, mugitu ezin diren pertsonen, modu honetan gertukoak garela sentituko dute. Modu berean, posta elektronikoaren bidez eskaintzak eta berriak bidaliko ditugu gure datu-baseko bezeroei, haien interesak mantentzeko eta gure produktuei buruz eguneratuta egoteko.

Lehengo bezeroak fidelizatzea

Egin ditugun bezeroak mantentzea ezinbestekoa da diru-sarrera errepikariak bermatzeko eta gomendioak sustatzeko. Hona hemen zenbait ekintza:

Arreta pertsonalizatua: Entzungo ditugu bezero bakoitzaren beharrak eta aholkuak emango ditugu peluka estilo edo egoerara egokienera aukeratzeko, haien ideiak kontuan hartuz eta benetako esperientzia sorrarazteko. Hori gutxi izango balitz, ere, kontsulta pribatuak eskainiko ditugu behar espezifikoak dituzten bezeroentzat, hala nola alopezia, tratamendu medikoak edo ekitaldi bereziak, haien beharrei ondo egokitutako soluzioak eskaintzeko.

Bonuak eta deskontuak: Deskontuak eta bonoak egin dezakegu bezeroak gehiago erosteko, Black Friday denean deskontuak egin denda guztiak bezala.

Produktuaren eta zerbitzuaren kalitatea: Horretarako eska dezagu kalitatezko eta iraupen luzeko pelukak eta ere eman genezake zaintza-gidak, bezeroek haien pelukak egoera onean mantentzeko.

Salmenta osteko zerbitzua: Ile ordeari buruz galderak egongo balira pozik erantzungo genituzke eta kalitatea hobereena izateko gida emngo genieke.

Beharretara egokitzea: Gure zerbitzuan nahi duzun peluka pertsonalizatuak eska dezakezu edo doikuntza espezifikoak (tamaina, kolorea, estiloa). Eskatuko diegu erosketa eta gero aste batera zelan izan den bere esperientzia momentu horrera arte, gu empresa moduan hobetzeko.